

# azpeitianzer

udal aldizkaria 142. zenbakia  
2011ko azaroa



Gizarte zerbitzuak  
Krisiari erantzunak  
emanez

# ale honetan zer?

- 3 Alkatearen adierazpena
- 4 Autorik gabeko gunea
- 5 Urrestillako lanak
- 6 Hitanoa
- 8 Elkarrizketa: Leire Etxaniz
- 10 Zergak
- 11 Etxe eskaintza
- 12 Motxean
- 14 Agenda
- 16 Antzerki Topaketak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.



## telefono interesgarriak

|                                 |              |                        |              |  |              |
|---------------------------------|--------------|------------------------|--------------|--|--------------|
| Zentralita                      | 943 15 72 00 | Euskara Patronatua     | 943 81 45 18 | Bailarako Nekazari                     |              |
| Alkatetza                       | 943 15 71 85 | Udal Euskaltegia       | 943 81 19 47 | bulegoa                                | 943 81 24 85 |
| Idazkaritza                     | 943 15 71 98 | Lapatx Zabortegia      | 943 15 18 75 | Enplegu bulegoa                        | 943 15 03 00 |
| Kontuhartzaitza                 | 943 15 71 89 | Azpeitia Lantzen S.A.  | 943 15 71 83 | 1. Epaitegia                           | 943 02 51 91 |
| Hirigintza                      | 943 15 71 91 | Ingurugiro Etxea       |              | 2. Epaitegia                           | 943 02 51 92 |
| Gizar te Zerbitzuak             | 943 15 71 92 | Fundazioa              | 943 15 17 13 | Erregistro Zibila                      | 943 02 51 99 |
| Kultura                         | 943 15 70 68 | Tokiko Agenda 21       | 943 15 70 70 | DYA                                    | 943 46 46 22 |
| Komunikazioa                    | 943 15 79 82 | Kontsumitzaileen       |              | Gurutze Gorria                         | 943 85 32 97 |
| Kirolak                         | 943 15 00 95 | Informaziorako bulegoa | 943 15 71 93 | S.O.S. Deiak                           | 112          |
| Parekidetasuna                  | 943 15 79 28 | Baigera I              | 943 81 44 64 | Taxiak                                 | 943 81 13 07 |
| Iturritxiki Ludoteka            | 943 15 11 79 | Baigera II             | 943 81 23 89 | Urkome                                 | 943 81 65 00 |
| Txiki-Txoko Ludoteka            | 943 15 05 16 | Ingurugiro Etxea       |              |  |              |
| Zapo Txoko                      | 943 15 71 61 | Museoa                 | 943 81 24 48 | Sexologia zerbitzua                    | 943 15 10 30 |
| Gaszte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |                        |              | Etxebizitza bulegoa                    | 943 81 66 99 |
| Eguneko Zentroa                 | 943 15 74 96 | Alkoholiko Anonimoak   | 629 14 18 74 | Astear te eta ostegunetan              |              |
| Liburutegia                     | 943 15 71 95 | AL-ANON Alkoholikoen   |              | 18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan |              |
| Udaltzainak                     | 943 15 13 13 | Sendiak                | 943 47 54 03 | 12:00etatik 14:00etara.                |              |
| Suhiltzaileak                   | 112          | Trenaren Museoa        | 943 15 06 77 | Baserritarren produktuen               |              |
| Igerilekua                      | 943 81 41 21 | Anbulatorioa           | 943 02 54 00 | merkaturatze bulegoa                   | 943 15 10 29 |
| Kiroldegia                      | 943 81 30 69 | Larrialdiak            | 943 02 54 01 | Astear teetan 10:00etatik 13:30era eta |              |
| Izarraitz Pilotalekua           | 943 81 25 63 | Ertzaintza (Azkoitia)  | 943 08 37 80 | ostegunetan 16:00etatik 19:30era.      |              |



Azpeitiko Udala

ETAren erabaki historikoak zabaldu duen garai berriaren aurrean, alkateak, zera adierazi nahi die azpeitiarrei:

1. Azpeitia asko sufritu duen herria izan da. Horregatik, egun historiko honetan, gure elkartasun zintzoena helarazi nahi diegu urte luzeotan sufritu duten eta sufritzen ari diren herritar eta familia guztiei.
2. Gure poza azaldu nahi dugu itxaropenerako zabaldu den aro berri honengatik. Herri honek behin eta berriro irrikatu duen bakea errealitate bihurtuko da.
3. Udal honek konpromiso irmoa hartzen du bere esku dagoen guztia egiteko Euskal Herrian normalizazio politikorantz urratsak emateko. Ziur gaude Azpeitia aurrerakoi eta oparo batean bizi izango garela etorkizun hurbilean.
4. Konpromiso irmoa hartzen du, era berean, gure herrian elkarbizitza eta adiskidetzeta nagusitzeko, alderdion, elkarte guztion eta herritarron erantzukizuna baita atzetik datozen belaunaldiek guk pairatutakoa paira ez dezaten.
5. Azkenik, dei egiten diegu Espainiako zein Frantziako gobernuari elkarriketa politikoak burutu ditzaten oraindik dirauen sufrimendua amaitzeko eta behin betiko bakea lortzeko. Azpeitiak eta Euskal Herriak merezi dutelako.

Eneko Etxeberria Bereziartua

Azpeitiko alkatea



# Autorik gabeko gunea

Udal Gobernu taldeak plaza oinezkoentzat jarri du igande eta jai-egunetan

**K**alera irten eta herritarrek lasai ibiltzeko eskubidea izatea beharrezkotzat jotzen du Azeptitiko Udalak, eta horretarako estrategikoa da herriko enparantza. Horregatik, plaza berriro herritarrentzat izan dadin erabaki garrantzitsua hartu du.

**“Azken urteetan herriko plaza aparkalekua bihurtu da, non autoek oinezkoak menderatzen dituzten”**

Udal Gobernuaren iritziz, “azken urteetan herriko plaza aparkalekua bihurtu da, non autoek oinezkoak menderatzen dituzten. Autoen sartu-irtenek oinezkoak trabatzen eta molestatzen ditu, eta bereziki, haur txikiekin ibiltzen diren hainbat familia arriskuan jartzen dituzte. Egoera honi aterabidea eman beharra

zegoen eta lehen pausoa igande eta jai-egunetan autorik ez egote aizan da”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Autorik gabeko guneak izatea oinarritzkoa da herri gunean eta hori bermatzeko helburu nagusiarekin, autoek ezin dute ez egon ez sartu plazan igande eta jai egunetan. Enparantzan aparkatuta dauden autoek igandeko 08:00ak aurretik kendu behar dituzte eta igandeko 22:00ak arte ezin da berriro sartu. Erabakia hartu zenetik hilabete igaro da dagoeneko, eta arduradunak

oso gustura agertu dira izandako harrerarekin, bai oinezkoen aldetik eta bai auto-jabeen aldetik ere.

Erdiguneko biztanleei eragiten zaien kaltea txikia dela deritzo Udal Gobernuak, izan ere, autoa aparkatzeko bestelako aukerak badira inguruko guneetan, besteak beste, Perretxiko eta Iraurgi ikastetxeak. Gainera, Soreasuko lur-azpiko aparkalekua nabarmentzen du Udalak, erdigunean egoteaz gain, lehen ordu eta erdia doan baita. Gainontzeko tarifak, berriz, oso merkeak dira:

|                       |                        |
|-----------------------|------------------------|
| LEHEN 90 MINUTUAK     | DOAN                   |
| 91. MINUTUTIK AURRERA | 0,008333 EURO MINUTUKO |
| EGUNEKO, GEHIENEZ     | 10 EURO                |



# Urrestillako Ibai Eder ibaiaren saneamendu lanak 2012ko urrian amaituko dira

Uraren Euskal Agentziak hasi ditu Urrestillako ibaia uholdeetatik babesteko lanak

**U**rrestillak uholdeak pairatzeko duen arriskua saihesteko eta saneamendu lanak hasita daude dagoeneko. Abian jarritako lan hauen garrantzia nabarmentzekoa da, izan ere, alde batetik, Urrestillako muina babestea lortuko da, uholde arriskua baitu, ibaiak euri handiko garai batean hartzen duen altuera baina baxuago kokatzen delako, eta beste alde batetik, kolektore baten bitartez Ibai Eder ibaian sortzen diren hondakin-urak batuko dira, orain arte egiten ez zena.

Uholdeen aurkako babeserako obren inguruan, ibaiaren zabalera 400 metrotan handitzea aurreikusten da eta horrez

gain, erabilpenik ez zuten aspaldiko presa bat eta bi zubi zahar eraitsi dira. Biek, euri ugari egiten zuenean eta ibaia emari handiarekin zihoanean uholde arriskua areagotzen zuten.

---

**Egindako lanen artean, erabilpenik ez zuten aspaldiko presa bat eta bi zubi eraistea aurkitzen dira**

Kolektorearen lanak, beste alde batetik, Urrestilla auzoan hasiko dira eta

Azpeitiko Antzibarrena industrialdean bukatuko dira. Bertan gaur egun dagoen kolektorearekin elkartuko da, hondakin urak Lasako araztegiara eramaten dituen. Gainera, lan osagarriak egingo dira Urrestillako hirigunean, ur zikinak eta garbiak banatuko dituen sarea berrituko delarik.

Proiektuak 5.060.939,31 euroko aurrekontua izango du eta lanak 15 hilabeteko epean burutu beharko dira. Horrela, Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziak abuztuan ekin zionez obrari, 2012ko urrian amaituta egotea aurreikusten dute arduradunek.



arin-arin  
hika egin!



Azpeitiko Euskara Patronatua



## Arin-arin, hika egin

Hitanoa suspertzeko proiektua abian jarri da herriko ikastetxeetako DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleekin

**a**zpeitia herri euskalduna denik ezin uka; hori dela eta, Udalak herri mailan duen aberastasuna bermatzea du helburu. Hala ere herriko gazteen artean hitanoa erabiltzeko ohitura eta kalitatea murrizten doazela jabetuz, Azpeitiko Euskara Patronatuak, Udalak eta Mintzolak proiektu berri bat jarriko dute martxan hezkuntza mailan. Egitasmo honen bidez, herri mailan

antzman den beharrari erantzun nahi zaio.

**“Euskara bigarren mailako hizkuntza dela esan dute beti baina altxorra da, hitanoa bezala”**

“Beti esan dute euskara bigarren mailako hizkuntza dela baina ez da horrela. Medikuak, kazetariak, ingeniariak euskaraz egiten dute lan gau egun. Altxorra da euskara eta hitanoa ere horrela da, horregatik honelako ekimena abian jartzea beharrezkoa eta egokia ikusten dugu”, agertu zuen Eneko Etxeberria alkateak egitasmoaren aurkezpenean.



### DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleekin

Azpeitiko hitanoaren egitasmoari dagokion helburu orokorra izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako gazteen artean erabilera-kompetentziak ezagutarazi, landu eta aberastea. 2011-2012 ikasturtean zehar burutuko den ekimenaren helburu orokor horrez gain, zehatzagoak diren helburuek ere badute beraien lekua proiektu honetan, hala nola, gazteen artean erabilera berpiztea, irakasleei metodologiaren inguruan formazioa eska intzea eta guraso zein irakasleei motibazio saioak ematea.

Bestalde, herritarren artean ere hezkuntza gain, hitanoaren inguruko egitea aurreikusten da, zuzenduriko ikastaroak



zein hitzaldi desberdinak antolatzea, besteak beste.

Gazteei zuzendu beharreko proiektua izanik, ahalik eta material erakargarriena egiten saiatu dira arduradunak: "Sortu behar genuena, gazteei erakargarri egin behar zitzaion zerbait izan behar zuela argi genuen. Horretarako, Zumaiako proiektua eginda egoteak, bidea argiago ikusten lagundu digu. Eta, beraz, argi geneukan sortu behar genuen materiala euskarri informatikoan eta sarean ibiltzeko modukoa izan behar zuela. Hala egiten saiatu gara", agertu zuen Mintzolako teknikari den Inazio Usarraldeak.

### "Sortu behar genuena, gazteei erakargarri egin behar zitzaion zerbait izan behar zuela argi genuen"

Horrela, Xapu zapo kazetariak darama sekuentzien protagonismoa. Xapuk hainbat egoera zehatz emango dizkie ikasleei eta horietara iristeko bidean txertatu dira hitanoaren inguruko jarduerak.

2011-2012 ikasturtea "Arin-arin, hika egin" proiektuaren hasiera besterik ez da izango. Datozen ikasturteetan egitasmo beraren eragin-eremua zabaltzea eta material sorkuntzarekin aurrera egitea aurreikusten dute arduradunek, hitanoa erabat sartu dadin gazteen hizkuntzan.

### Egitasmoaren eduki aipagarrienak:

- 1.-Azpeitiko ikastetxeetan gauzatu nahi da, bertako irakasle, ikasle eta gurasoak kontuan hartuz.
- 2.-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxiler mailan landuko diren proposamen didaktikoak eskainiko ditu Mintzolak: hasiera batean, 10 sekuentzia didaktikoren diseinua eta esperimendazioa aurreikusten ditu.
- 3.- Hitanoa gazteek ezagutu, landu zein erabiltzeko proposamenak izango dira sekuentzia didaktikoen bitartez egingo direnak.
- 4.- Mintzolak, Azpeitiko ereduak jorratuko ditu, hala nola, ikus-entzunezko materialak aztertuz, hitanoaren inguruko erreferentziak bilatu zein hautatuz eta Azpeitian hitanoaren inguruko ikerketak egin badira, beraiek baliatuz.
- 5.-Urte osoko prozesuan gauzatutako lana ikastetxeetan esperimendatua eta baloratua izango da, azken emaitza izango diren sekuentzia didaktikoak sortu arte.
- 6.-Ezarri diren helburuak betetzeko 12 hilabeteko jarduna betetzea espero da.

# elkarriketa

## “Politika aurrerakoien bidez, gizartean gutxien dutenei lagunduko diegu”

Leire Etxaniz,

Gizarte Zerbitzuak eta Parekidetasun sailtako batzordeburua



Gaur egungo gizartea pairatzen ari den krisi egoeraren aurrean, Azpeitiko Udala irtenbideak bilatzen eta ematen saiatzen ari da. Behar gehienak dituztenei laguntzeko baliabide nagusia Gizarte Zerbitzuak saila izango da.

**Nola eragiten du egungo krisiak Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailean?**

Eragina sakona da, krisia ekonomikoak azpeitiar asko egoera eta sufrimendu handian utzi eta uzten ari da. Herritarren beharrak asko hasi dira.

**Zeintzuk izango dira Udal Gobernuak legealdi honetan izango dituen lehentasunak Gizarte Zerbitzuetan?**

Lehentasun nagusia gizartean gaizki pasatzen ari direnei laguntzea da. Denok dugu bizitza digno bat izateko eskubidea eta administrazio publikoak garantizatu behar du hori. Guk, Udala eta politika aurrerakoien bitartez, gizartean gutxiena dutenei laguntza emango diogu, horretarako gehien dituenaren baliabideak erabiliz.

**Gizarte politika aldarrikatu duzue hasieratik eta lehen pausoa ere eman duzue, tasa eta zergetan hainbat**

**hobari eta neurri berezi onartuz langabetuentzat?**

Behin eta berriz esan dugun moduan Azpeitian balore aldaketa bat egitea nahi dugu. Azpeitia berri bat irudikatzen dugu. Eta etorkizuneko irudian ez dago inor gizartetik kanporatua. Langabetuak eta beraien familiak sufritzen ari dira, eta edonori gerta dakioko. Guk inoiz baino gehiago lagunduko diogu, eta azpeitiarrei elkar tasuna adierazi behar dugula esaten ari gara. Udalak balore aldaketan eta elkar tasunean lidergoa eraman behar du. Hobarien bidez oinarritzko errekurtsioak aseguratuta dituzte langabetuak.

**Horrez gain, zein aktuazio aurreikusten dituzue egoera ekonomiko larria pairatzen ari diren familientzat?**

Gaia benetan sakona da. Guk egoera horretan daudenei lagunduko diogu, modu ordenatuan eta arautuan nahi ditugu udal baliabideak honetan erabili.

Dagoeneko diseinatuta dugu, gure etorkizuneko arlo sozialeko politika izango dena. Orain kontrasteak egitea falta zaigu, eta ez genuke gure proposamena alderdikieretan erortzea nahi, horregatik aurrekontuekin batera eztabaidatuko dugu.

**2012 urterako aurrekontuekin jarriko zarete berehala, Gizarte Zerbitzuetako partida igo egingo al da?**

Guk, Udal bezala, dauden baliabide ekonomikoen efizientzia handiena bilatuko dugu. Eta gizarte zerbitzuen aldeko apustu politiko handia egiten dugu. Kanpainan ere esan genuen, ez dugu inor atzean usteko asmorik. Dauden baliabideen erabilera egokia errebisatuko dugu eta sortzen ari zaizkigun behar berriei erantzuteko politika berriak diseinatzen ari gara. Ondorioz, gizarte zerbitzuetan inbertituko dugu.



**Lana sortzea eta aukerak ematea ere puntu estrategikotzat jo zenuten krisiari aurre egiteko. Horren adierazle al da Gizarte Zerbitzuak sailak etxeko laguntzan eta geriatrian lan egiteko antolatuta duen ikastaroa?**

Bai. Merkatuan lan aukera dagoela ikusi dugu. Etxean laguntza ematea premiazkoa izango da etorkizunean eta lanpostuak sortzen eta sortuko dira atal horietan. Ikastaroaren bitartez etorkizuneko lanpostuak prestatzen ari gara. Eta bi ardatz estrategiko lotzen ditugu, bata, lanaren sorrera, eta bestea, gizarte laguntzarena.

**Hirugarren Adina batzorde berria sortu da aurten, zein garrantzia du kolektibo honek?**

Denok dakigu gure gizartea gero eta zaharragoa dela. Zaharrak ez ditugu baztertuta izkina batean nahi, gure gizarteko zutabe nagusienetako ditugu, eta asko dugu beraiengatik ikasteko. Orain sufritzen dugun egoera ekonomiko konplikatuan adibidez, beraien ikuspegi historikoa ematen digute eta beste era batetako gizar teak egon dirala erakusten. Ahalik eta gehien aktibatu behar ditugu eta derrigorra dugu Udalan eta orokorrean Azepeitian beraien ekarpena. Horregatik, Kontxita Martijak zuzentzen duen batzorde berria batzorde estrategikoa da guretzat.

**Tratu txarren inguruko kasuak eramateko eta tratatzeko garrantzi handia izango duen protokolo bat egiten hasi da Azepeitiko Udala.**

Emakumeen aurkako biolentzia gure gizartean dagoen lakra sozial handienetakoa da. Urteotan baliabide asko jarri dituzte hainbat instituzioak emakumeak babesteko, orain, baliabideak koordinatzea eta ahalik eta zerbitzu hoberena ematea tokatzen zaigu. Borroka hau irabazteko azkartasuna eta efikazia behar dugu, denok zalantzarik gabe gure indar guztiarekin erantzun behar dugu. Udalak hainbat instituzioekin: Ertzantza, Polizia, Munizipala, Epaitegia, Diputazioa, Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza ... koordinazio protokolo bat lantzen ari da, eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeak ahalik eta egokien babesteko ditugu. Era berean, gaiaren inguruko sentsibilizazioa sustatuz.

**Emakumeekin jarraituz, Emakumeen Txokoak bere ibilbideari ekin dio orain gutxi. Nolakoa balorazioa egiten da lehenbiziko aste hauetan?**

Balorazio oso ona da. Emakumeek erreferentzia izango den gune baten beharra ikusten zen, emakumeen ahalduzko prozesu bat bultzatzeko gunea. Non herriko parekidetasunaren aldeko ekimen aldarri eta topalekua izango den. Proiektu pioneroa da eta ireki berria. Ezagutu egin behar da. Hainbat

ekintza antolatzen ari gara eta, pixkanaka, gero eta herritar gehiago ger turatzen ari dira bertara.

**Urola Erdiko Mankomunitatearen lehendakari ere bazara. Zeintzuk izango dira Mankomunitateak hondakinekiko izango dituen asmo nagusiak?**

Urola Erdiko Mankomunitatea Beizama, Azkoitia, Zestoa, Aizarnazabal, Errezil, Bidegoian eta Azepeitiko zabor bilketaz arduratzen da. Mankomunitatea Lapatz zabor tegiaren jabe da. Mankomunitatean parte hartzen duten herriak ikuspegi diferenteak dituzte hondakinen inguruan. Denak ari dira gai honen inguruko hausnarketa sakona egiten. Azken urteetako kudeaketa ez bai da egokia izan. Gure asmoak, labor bilduz, hauek izango liriteke: a) Hondakinen inguruko Europako arauak eta legea guztiz betetzea, b) Ahalik eta hondakin gutxiena produzitzeko sistemak abian jartzea, c) Hondakin jasotze sistema efiziente eta ekonomikoak antolatzea, eta d) Lapatxek sortzen dituen arazoak konpontzea.

**Eta politika, zer iruditzen zaizu Azepeitiko politika?**

Harridura sortzen dit, denok Azepeitiarentzat hoberena dena bilatu beharrean, batzuek, alderdikeriarengatik beraien interes propioei begiratzen diote. Hala ere, guk argi dugu, herritarrentzako eta herritarrekin ari gara lanean.



## 2012 urterako zergak eta tasak onartu ditu Udalak

Zerga eta prezio publiko gehienei KPI-aren igoera ezarriko zaie; %3a

**2** 012rako ordenantza fiskalak onartu zituen Udaltzaren 21ean egindako osoko bilkuran. Orokorrean, zerga eta tasa guztiei KPI-ari dagokion igoera ezarriko zaie, %3a. Uraren, zaborraren eta kiroldegiko tasek, ordea, aldaketak izango dituzte.

Udal ordezkariak agertu zuten, hiru atal hauek batuz 1.600.000 euroko zuloa izatea aurreikusten da eta neurriak hartzea ezinbestekotzat hartzen du: "Urak, zaborrak eta kiroldegiak urtero herriari 1.600.000 euro kostatzen zaizkio eta historikoki zuloa egin eta egiten jarraitu da, inolako neurririk hartu gabe. Herritarren dirua non gastatzea erabaki behar dugu. Eta erabakia politika sozialetan gastatzea bada, ezinezkoa da errekurtsio guztiak hiru atal hauetan xahutzea", esan zuen Eneko Etxeberria alkateak.

### Ura



Azken urteetan izan bezala, uraren tasa kontsumoaren arabera kobratuko da. Horrela, gehien kontsumitzen duenak gehiago ordainduko du, hala ere, hileko kuota 2 eurotan igoko da gehienez. Bestalde, gutxien gastatzen dutenek ez dute igoerarik izango, hemen kokatzen dira alargunak, bakarrik bizi direnak... Gainera, langabetuen egoera aztertzeke konpromisoa hartzen du Udalak.

### Zaborra



Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak %19a igoko dio Udalarari Lapatzaborte gira iristen den zabor tonako gastuak, horregatik, Udalak %13ko igoera ezarriko dio. Salbuespen bezala, konpostaren aldeko kanpaina parte hartzen duten familiek % 25 gutxiago ordaindu beharko dute tasa.

### Kiroldegia



laz igerilekua handitu zen, 6tik 10 kale izatera igaroz, "eta honek mantenu gastuak ikaragarri igo ditu". Horrela, eta kontutan hartuta, kiroldegia erabiltzaileek soilik ordaintzen dutela, %16 igoko da. Hori bai, langabezia dauden familiek ez dute igoerarik izango, izoztu egingo zaie kuota, erabaki honek % 40ko deskontua suposatzen dielarik. Era berean, hurrengo urteetan kiroldegiaren gaia ondo hausnartuko dutela ziurtatu zuten ordezkariak, kostuak ahalik eta gehien murrizteko asmoz.



# Etxebizitza tasatuetan izena emateko epea zabaldu du Udalak

Euskal Herria edo Enparan Kaleko promozioetako etxe bat eskuratu nahi dutenek azaroaren 11a baino lehen eman behar dute izena

**E**nparan kaleko eta Euskal Herria auzuneko etxebizitza tasatuak berriro zozketatzea erabaki du Udalak, urriaren 4ko bilkuran aho batez onartu eta gero. Etxe hauek Azpeitia Lantzen baltzuak martxoan egindako deialdiko berdinak dira, baina orduan, lau etxebizitza saldu gabe gelditu ziren eta horregatik erabaki da berriro prozesua abian jarzea.

Udal ordezkarien asmoa, zoketa ahalik eta azkarren egitea da. Horrela, lehenbizi izena emateko epea zabalduko, ondoren, jasotako proposamenak aztertu beharko dira denek oinarriak betetzen dituzten edo ez jakiteko eta azkenik, zozketa egingo da: "Prozesu guztia ondo jarraituz, abenduan egitea aurreikusten da zozketa, lehenbizi behin behieneko zerrenda kaleratu behar baita eta gero behin betikoa", azaldu dute.

## Betebeharrak

Etxebizitza tasatuen zozketan parte hartu ahal izateko, baldintza desberdinak bete beharko dira. Esanguratsuen artean aurkitzen dira:

- 2010 ekitaldiko diru-sarrerak hartuko dira kontutan eta hauek ezingo dute 52.500 euro baino handiagoak izan. Halaber, gutxieneko sarrerek ezingo dute 12.000 euro baino txikiago izan.

- Herriarekin lotura izatea. Azpeitian erroldatua egotea, gutxienez 3 urtean azken 5 urteotan, azken 10 urteotan Azpeitian lan egin izana edo udalerrian erroldatua egon izana gutxienez 5 urteotan, azken 15 urteotan frogatu beharko dute interesatuek.

## Etxebizitzen salneurriak

Euskal Herria 33 (eraikitzen)

Etxebizitza 1  
Solairuarterkoa D.....178.900 euro

Enparan kalea 47 (eraikita)

3 etxebizitza  
Lehenengo solairua B..162.273,27 euro  
Lehenengo solairua C.174.293,51 euro  
Bigarren solairua C.....177.298,57 euro

**IZENA EMATEKO EPEA  
AZAROAREN 11ean  
ITXIKO DA  
Horretarako, Azpeitia  
Lantzenen bulegora joan  
beharko da.**

## Bidegorria osatzeko hobekuntzak



inauguratu da Azpeititik Lasara doan bidegorria. Azpeitiko Udalak honelako egitasmoekin bat egiten du eta herritarrek ere horrela egiten dutela ikusten da, bidegorri berriak harrera oso ona izan baitu azpeitiarren artean. Hala ere, Azpeitiko Udalak bi eskakizun egin dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, batetik, proiektuan aurreikusten zen Urola ibaira sarbide bat egitea, mantentze-lanak egin eta makineria astuna sartzeko. Bestetik, eserlekuei dagokienez, eta lehendik daudenak kontutan hartuta, bi eserleku gehiago jartzeari behar da. Bi berrikuntza hauekin, Udalak Bidegorria amaitutzat emango luke.

## Emakumeen Txokoa, abian



parekidetasunaren alde lan egiten duten herritarrek badute non bildu. Irailaren 17tik aurrera, Azpeitiko Emakumeen Txokoa zabaldua dago, Goiko kale 12an (Izarratx pilotalekuko eraikinean). Herriko parekidetasunaren aldeko ekintza, aldarri eta talde desberdinen topalekua izatea du helburu nagusizat eta emakumeen ahalduzko prozesua bultzatzeko tresnak eskainiko diren gunea izango da. Gainera, bertako logotipoa aukeratzeko lehiaketa deialdia egin du Parekidetasun sailak. Partaideek nahi adina proposamen aurkeztu ditzakete azaroaren 18 baino lehen.

## Dantzari txapeldunei harrera



**J**on Ibaguren azpeitiarrak eta Idoia Besada pasaitarrak Euskal Herriko 35. Dantza Txapelketa irabazi zuten urriaren 9an, eta Udalak harrera egin herriaren izenean zorionak emateko. Eneko Etxeberria alkateak eta Imnaol Amenabar Kultura batzordeburuak dantzariak txapelketa irabazteagatik eskuratutako Nestor Basterretxearen eskultura jaso zuten udaletxean gorde dezaten urtebetez. Hiru urtez jarraian edota bost urtetan hiru aldiz irabaziz gero, garaikurra udaletxean geldituko da betirako. Alkateak bikotea zoriondu eta lorpena txalotu zuen eta herriko historia biltzen duen liburu bilduma bana eman zien.

## Erretiratuen Astea azaroan



**a**zaroaren 7an hasi eta 13ra bitartean erretiratuentzat ekitaldiz betetako egunak izango dira, izan ere, Baigera elkarteak Erretiratuen Astea antolatu du. Aurtengo edizioarekin hasteko karta txapelketak izango dira eta hilaren 8an "Dependentsia legea eta laguntza ekonomikoak" hitzaldia eskainiko dute. Asteazkenean txokolatada egingo da, ostegunean Aginagara irteera prestatu dute eta ostiralean joko desberdinak egiteko aukera izango da. Azaroaren 13an, igandea, kalejirarekin eta bazkariarekin emango diote amaiera aurtengo Erretiratuen Asteari.

# agenda

## AZAROA

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  |
| 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 |    |    |    |    |



### 9, asteazkena

#### JUBILATUEN ASTEA

-ESPERIENTZI ESKOLA, Baigera I, 16:30ean

#### -TXOKOLATADA

Baigera I, II eta Eguneko Zentroan 18:00etan

#### KAFE NAPARRA MAHAI INGURUA

Sanagustin kulturunea, 20:30 – 22:30

### 10, osteguna

#### JUBILATUEN ASTEA

-Aginagako sagardotegira ibilaldia

16:30ean

#### PROIEKZIOA + HITZALDIA INGURUGIRO ZINE FORUMA

Sanagustin kulturunea, 19:00etan

### 11, ostirala

#### JUBILATUEN ASTEA

-Belaunaldi ezberdinen arteko mus  
eta punto txapelketa azkarrak

Baigera I, 16:00etan

-Bingoa, Baigera I, 17:00etan

#### LASAOKO JAIK 2011

20:00 TXUPINAZOA

20:30 BERTSO AFARIA

-Julio Soto

-Xebastian Lizaso

#### XXIX. Euskal Antzerki Topaketak

-“BODOLOGUAK” ESTREINALDIA

Helduentzat emanaldia

Soreasu Antzokia, 21:30ean

#### KONTZERTUA

BIKUSTIK + MOBY DICK

Sanagustin kulturunea, 23:00etan

### 12, larunbata

#### BIDEZKO MERKATARITZAREN AZOKA

Udaletxeko arkupetan, goiz osoan zehar

#### BUSTINZURIKO

ERREBALEKO FESTAK

11:00 Txistulariak

15:30 Txokolatada eta umeen jolasak

16:30 Sokamuturra

#### LASAOKO JAIK 2011

15:30–19:00 Haurrentzako puzgarriak

txokolatea eta goxokiak, gaztaina

erreak

#### XXIX. Euskal Antzerki Topaketak

-MAHAI-INGURUA: IDAZTEAREN

PLAZERA

Sanagustin kulturunea, 11:00 – 13:00

#### - “GURE BIDE GALDUAK”

Helduentzat emanaldia

Soreasu Antzokia, 21:30ean

### 13, igandea

#### LASAOKO JAIK 2011

#### JUBILATUEN ASTEA

#### XXIX. Euskal Antzerki Topaketak

-“IPIINAREN BILA”

Haur eta helduentzat emanaldia

Soreasu antzokia, 18:00etan

### 14, astelehena

#### XXII. IPUIN KONTAKETAK

Udal liburutegian, 18:00etan

Eskola edo gaztetxoei zuzenduriko  
antzerki topaketak

Soreasu antzokian, Goizean 11:00etan  
eta arratsaldean 15:30ean

### 15, asteartea

Eskola edo gaztetxoei zuzenduriko  
antzerki topaketak

Soreasu antzokian, Goizean 11:00etan  
eta arratsaldean 15:30ean

### 16, asteazkena

Eskola edo gaztetxoei zuzenduriko  
antzerki topaketak

Soreasu antzokian, Goizean 11:00etan  
eta arratsaldean 15:30ean

#### MAHAI INGURUA: KAFE NAPARRA

Sanagustin kulturunea, 20:30 – 22:30

### 17, osteguna

Eskola edo gaztetxoei zuzenduriko  
antzerki topaketak

Soreasu antzokian, Goizean 11:00etan  
eta arratsaldean 15:30ean

#### Antzerki amateurrari zuzenduriko asteburua

ANTZERKI ALTERNATIBOA

-ERIKA ETA ANE “EGUZKILORE”

-URKI MUGURUZA “MUNSTROA”

Gaztetxean, 21:30ean

### 18, ostirala

Antzerki amateurrari zuzenduriko asteburua

Helduen antzerki amateurra


“HAU EZ DA KALKUTA”

Soreasu Antzokia, 21:30ean

#### DJ SAIOA

AITZEALDENKI!

Sanagustin kulturunea, 23:00 – 01:00



### 19, larunbata

Antzerki amateurrari zuzenduriko asteburua

- IÑAKI BERGARARI:

1.-Txalo Saria

2.-Bere liburuxka biografikoaren aurkezpena Sanagustin kulturgunea, 12:00etan

-Helduen Emakume Tailerra

Azpeitiko Emakumeen

Antzerki Tailerra

"LOST AND FOUND"

Soreasu Antzokia, 21:30ean

UDAL MUSIKA BANDA

SANTA XIXILI OSPAKIZUNA

18:00etan, Kalejira

19:00etan, Kontzertua

Sanagustin Kulturgunea

### 20, igandea

XXIX. Euskal Antzerki Topaketak

"INORAKO BIDAIA"

KUKUBILTZO, ESTREINALDIA.

Soreasu Antzokian, 18:00etan

### 21, astelehena

XXII. IPUIN KONTAKETAK

Udal liburutegian, 18:00etan

### 22, asteartea

SANTA XIXILI KONTZERTUA

MUSIKA ESKOLA

Sanagustin kulturgunea, 19:00etan

ZINE EMANALDIA:

INDARKERIA MATXISTEN AURKA

Mugarik gabe GK Eren eskutik

FILMAK

Emakumeen txokoa, 19.30ean

### 23, asteazkena

ZINE EMANALDIA: INDARKERIA MATXISTEN AURKA

Mugarik gabe GK Eren eskutik FILMAK

Emakumeen txokoa, 19.30ean

MAHAI INGURUA: KAFE NAPARRA

Sanagustin kulturgunea, 20:30 – 22:30

### 25, ostirala

EHNEko JARDUNALDI TEKNIKOAK

Sanagustin kulturgunea, 09:00 – 18:00

ANTZERKI TAILERRAREN HASIERA

Emakumeen txokoa

15.00 – 17.00

KONZENTRAZIOA:

Emakumeenganako indarkeriaren

aurkako nazioarteko eguna dela

eta, indarkeria sexista salatzen

Plaza Nagusia,

19.30ean

AFARIA + KANTALDI HERRIKOIA

KULTURALDIA KANTU AFARIA

Sanagustin kulturgunea,

21:00etan

Azpeitiko V. BOULDER TXAPELKETA

Gaztetxean, 22.00etan

### 26, larunbata

EHNEko JARDUNALDI TEKNIKOAK

Sanagustin kulturgunea

09:00 – 18:00

AUTODEFENTSA TXOKOA

Azpeitiko Bilgune Feminista

Sindikatu Zaharra

10.00etan

Azpeitiko V. BOULDER TXAPELKETA

Goizean gaztetxean haurrentzat

rokodromoa

TXAPELKETA

Soreasu Antzokia Zine emanaldiak

KONTZERTUA

AFARI MUSIKATUA

Sanagustin kulturgunea, 23:00etan

### 27, igandea

ESCUADERIA LAGUN ARTEAK antola-

turik erakustaldia gerratxiki industrial-

dean txiki biran

"Asmakuntzak salgai" Jakin eta jolas taldea

Sanagustin kulturgunea, 12:00etan

Soreasu Antzokia Zine emanaldiak

DANTZA ERAKUSTALDIA: CAPOEI-

RA ERAKUSTALDIA

Sanagustin kulturgunea 18:00etan

### 28, astelehena

XXII. IPUIN KONTAKETAK

Udal liburutegian

18:00etan

Soreasu Antzokia Zine emanaldiak

### 30, asteazkena

HITZALDIA: Nola egin jostailu egokia aukeratzeko?

Emakumeen txokoa

19.30ean

MAHAI INGURUA:

KAFE NAPARRA

Sanagustin kulturgunea

20:30 – 22:30

# azaroaren 4tik 20ra




## AZPEITIA



### Euskal Antzerki Topaketak

2011ko udazkena



**zatoz eta  
gozatu  
antzerkiaz!**

## botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74  
Azaroaren 1, 7, 12, 13, 17 eta 24ean.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2  
Tel.: 943 81 13 50  
Azaroaren 2, 3, 4, 10, 22, 29 eta 30ean.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49  
Azaroaren 11, 16 eta 23an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74  
Azaroaren 8, 14, 19, 20, 25 eta 28an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58  
Azaroaren 5, 6, 9, 15, 18, 21, 26 eta 27an.

